

4/2016 UDALEKO OSOKO BILKURA

2016KO MAIATZAREN 30EAN IZANDAKO OHIKO OSOKO BILKURAREN AKTA

BERTARATUTAKOAK:

ALKATEA

Pedro M^a Estanga Lasa (EH Bildu taldea)

ZINEGOTZIAK:

Aratz Luisa Urkola (EH Bildu taldea)
Izaskun Jauregi Saizar (EH Bildu taldea)
Bakarne Olano Manzano (EH Bildu taldea)
Josune Eizmendi Manterola (EH Bildu taldea)
Kepa De la Iglesia Sánchez (EAJ taldea)
Iñaki Merino Castro (EAJ taldea)

BITARTEKO IDAZKARIA:

Idoia Baraizar Otaño

Anoetako udaletxean, 2016ko maiatzaren 30ean arratsaldeko zazpiak direla, eta ondorio horretarako deia egin ondoren, Udaleko Ohiko Osoko Bilkura antolatu da, Pedro M^a Estanga Lasa Alkatearen Lehendakaritzapean, eta Idoia Baraibar Otaño andrea, Bitarteko Idazkari lanetan aritu naiz.

Francisco Berbel Perez eta Jose Ignacio Otermin Garmendia zinegotziak ez dute ezin etorria adierazi.

1.- 2016KO APIRILAREN 25EKO UDAL PLENOAREN BILKURAREN AKTA ONESTEKO PROPOSAMENA.

2016ko apirilaren 25eko udal plenoaren bilkuraren akta irakurri eta aho batez onartua izan da.

2.- EBAZPENEN BERRI EMATEA, 2016KO APIRILAREN 18TIK MAIATZAREN 16A BITARTE, BIAK BARNE.

2016eko apirilaren 18tik maiatzaren 16a bitartean izaniko ebazpenen berri ematen du alkate jaunak, udalbatzarkideak jakinaren gainean geratuz.

3.- ANOETAKO EH BILDUK PROPOSATUTA TOLOSALDEA OSASUNGINTZA EREDUAZ EUSKO JAURLARITZAKO OSASUN SAILARI ESKAERA.

EH Bildu taldeko zinegotzia den Aratz Luisa Urkola jaunak, ondorengo mozioa irakurtzen du:

“TOLOSALDEA OSASUNGINTZA EREDUAZ.- 2011tik Euko Jaurlaritzak lankidetzaz hitzarmen bat eduki du Inviza ospitale pribatuarekin (Asuncion klinika aurrerantzean) Tolosaldeko ospitale erreferentziala izateko. Nahiz eta Jaurlaritzatik informazio gehiegi ez helarazi, behin baino gehiagotan salatu dugu osasun arreta izaten ari den gainbehera etengabea.

Honetaz gain, bost urte luze hautean, ezagunak izan dira Asuncion Klinikak historikoki duen lau milioi euroko zorra ez ordaintzeko egindako trikimailu mordoa. Hemen ere argi eta garbi utzi dugu gure osasun arreta erdigunean egon behar duela eta ez irabazi ekonomikoen menpe.

2016ko azaroan Jaurlaritzak Asuncion klinikarekin duen hitzarmena bertan behera geratzen da. Momentu historiko baten aurrean gaude. Tolosaldeko herritar eta eragileok sekulako aukera dugu eskualdean nahi dugun osasun arreta erabakitzeko. Urte luzez eskatu dugu eskualdeko eragilez osatutako mahai bat osaketa eta Jaurlaritzak behin eta berriz atek itxi dizkio aukera honi.

Eusko Jaurlaritzako Osasun sailak Tolosaldeko herritar eta eragileon bizkar, aldeakartasunez osasun sistema pribatua erdigunean duen sistema bat inposatu nahi digu berriz ere. Hasieratik gure ezezkoa adierazi genion aukera honi eta orain, bost urte geroago egoera hau luzatu nahiko dute Lakuatik.

Horregatik, ondoko eskaera hau egin nahi dio ANOETAko udalbatzak Eusko Jaurlaritzako Osasun Sailari:

1.- Mahai gainean jar ditzala bost urtez indarrean egon den konbenioaren balorazio tekniko zein ekonomikoa xehetasun osoz balorazio osatu bat egiteko aukera izateko.

2.- Ireki dezala prozesu partehartzaile bat eskualdeko udal eta herri eragileekin denon artean aurtengo azarotik aurrera jaso nahi dugun osasun arreta denon artean erabakitzeko. Mozio hau tolosaldeko ESIko zuzendariari, Osasun kontseilariari eta Legebiltzarreko Osasun batzordeari helaraziko zaio”.

Ondoren alkateak aipaturiko mozioa bozketara eramane du ondorengo emaitza lortuz:

*ALDEKO BOTUAK: **BOST** (EH Bildu talde politikoa)

* AURKAKO BOTUAK: **BAT ERE EZ**

* ABSTENTZIOAK: **BI** (EAJ talde politikoa)

Bozketaren emaitza ikusi ondoren, “Tolosaldea Osasungintza ereduaz” mozioa onesten da.

4.- ANOETAKO EH BILDUK AURKEZTUTAKO MOZIOA: IPAR ATLANTIKOKO MERKATARITZA ETA INBERTSIOAREN HITZARMENA (TTIP INGELESEZ) APLIKATZEAREN KONTRAKO UDAL AITORPENA.

EH Bildu talde politikoko zinegotzia den Aratz Luisa Urkolak deialdiarekin batera banatu den aitorpenaren laburpena irakurri du eta aho batez ondorengo mozioa onesten da:

Talde Politikoa: EH BILDU Udala: Anoeta

Goian adierazitako udalerriko talde politikoaren zinegotziek, eztabaidatzeko, et ahala balegokio, onesteko, hurrengo MOZIOA aurkezten dute: Ipar Atlantikoko Merkataritza eta Inbertsioaren hitzarmena (TTIP ingelesez) aplikatzearen kontrako udal aitorpena, hurrengo zioen oinarrituta:

ZIOEN ADIERAZPENA

2013. urtean Europako batzordeari Europako Batasunaren (EB) estatuek agindua eman zioten, Ameriketako Estatu Batuekin (AEB) Ipar Atlantiko Merkataritza eta Inbertsio Hitzarmena negoziatzeko (ATIC, edo ezagunagoa den TTIP, ingelesez; edo baita Atlantikoz gaindiko Merkataritza Librearen Hitzarmena (TAFTA) izenez ezagutzen dena). Teoriaz hitzarmen horren helburua EBren eta AEBen arteko merkataritza handitze azen, muga-zergak murriztuz, eta enplegua, hazkunde ekonomikoa eta lehiakortasuna handituz.

Europar Batasuna (EB) eta Ameriketako Estatu Batuak (AEB) negoziazioa bideratzen ari dira, merkataritza eta inbertsioen eremu liberalizatua eraikitze, herritarrak eta ordezkari politikoak (nazioetako parlamentuak zein europar parlamentua) albora utzita. Horrek guztiak berekin dakar demokrazia, lan eskubideak eta osasun eta ingurumen eskubideak arriskuan jartzea, lehenasuna ematen baitie inbertitzaileen eta enpresa transnazionalen merkataritza interesei, guztion interesa eman beharrean. Informazioa erabat mugatua izateak eta negoziazioetan partaide kopurua oso txikia izateak herrien eta hirien kritika gogorrak jaso ditu, negoziazio horien emaitzek eragin handia izango baitute lurralde horietan.

EBren barruan lurralde gobernuek eskubidea dute informazioa jasotzeko Europan onetsiko den eta haien lurraldeetan eragina izango duen legediaren gainean. Eta horrela, bide batez, eskubidea izango dute iritzia adierazteko. Lurralde guztiei eskubide horiek ukatu egin zaizkie, TTIPen gainean negoziatu duten edukiari dagokionez.

AEBek eta EBk TTIPen inbertitzaileak babesteko neurriak sartu nahi dituzte. Eta inbertitzaile batek estatu batekin desadostasunik izanez gero, arbitraje batzorde bat, “Investor-to-State Dispute Settlement” (ISDS) izenekoa, desadostasun horiek ebazteaz arduratuko da. Batzorde horrek eskumenak izango ditu zehazteko estatuek zer konpentsazio ekonomiko eman behar dizkieten inbertitzaileei, baldin eta inbertitzaile horiek frogatzen badute estatuek kanpainiaren etorkizuneko etekinak murriztuko lituzketen zenbat neurri aplikatu dituztela (ala nola, ingurumena babesteko estandarrak igotzea). Estatuek horrelakoetan epaitegietan erabakiaren kontra helegitea aurkez dezakete eta beharbada irabaz dezakete, baina horrek prozesuaren

izugarritzko kostu handiak ekarriko dizkie. Gainera, arbitraje-batzordeen erabakiak irmoak dira eta ezin da gora jo.

EBk eta AEBek garapen bidean dauden herriekin sinatzen dituzten akordioetan ISDS bezalako erakundearen arauak oso ohikoak badira ere –lege erabakietan nolabaiteko aurreikuspenak ziurtatzearen-, ez da horrelako araurik behar, herrialdeek lege eta epaiketa sistema garatuak dituztenean, hala nola, Europako Batasunak eta Ameriketako Estatu Batuek.

Halaber, herritarrei interesatzen zaie zerbitzu publikoak eraginkorrak izatea, bizi kalitate ona ziurtatzeko. Lisboako Itunak Europako Batasuneko estatu kideei eskumena onartzen die, batetik, zer zerbitzu diren interes orokorrekoak erabakitzeko; eta bestetik, zerbitzu horiek antolatzeke. Beraz, Hitzarmenaren terminologiak EBko itunekin bat etorri beharko du, eta Lisboako Itunarekin bereziki; itun horrek funtsezko garrantzia duelako “interes orokorreko zerbitzuei” dagokienez. Hori dela eta “onura publikoa” terminologia ez da egokia, eta hori da, hain zuzen ere, Hitzarmenean jasotzen dena.

Zerbitzu publikoek segitzen dute aldaketa politiko, teknologiko eta sozialekin batera etengabe aldatzen. Baina horiek ez bezala, merkataritza hitzarmenek politika publikoak murrizteko arriskua dakarte, “balazta klausulen” bitartez, batez ere zerbitzu publikoen alorrean.

Kontratazio publikoari dagokionez, TTIPen bidez helburu hau lortu nahi da: Munduko Merkataritza Erakundearen (WTO) Kontratazio Publikoaren Akordioa (GPA) mantendu nahi da, beste akordio hobetu bat sortu arte. EBko batzordea GPA erabiltzen ari da kontratazio publikoaren legearen bermeak murrizten ari direla arrazoitzeko.

Edozein akordio motak, baita kontratazio publikoak ere, bermeak handitu behar ditu; eta ez murriztu. Akordio horrek ezin ditu EBko kontratazio publikoaren legearen arlo progresiboak arriskuan jarri, eta are gutxiago lurraldeetako eta tokietako garapena ahalbideratzen duten horiek. Arlo horiek garrantzitsuak dira, ahalbideratzen dutelako, kontratazio publikoak egiterakoan, prezioa ez ezik bestelako faktoreak ere kontuan hartzea, hala nola, ingurumenari eta gizarteari dagozkienak.

TTIPek hurrengoak ditu helburu: herri zerbitzuak erabat liberalizatzea, ETNei zerbitzu horiek emateko aukera eskaintzea, eta enpresa horiei herri administrazioen ondasun eta zerbitzu guztiak erosteko eta lizitatzeke aukera zabaltzea. Horren ondorioz, hitzarmenak, boterearen maila guztietan, arriskuan jartzen ditu zerbitzu eta erosketak publiko guztiak; eta hautatutako ordezkarien eskumena murrizten du tokiko erkidegoak kudeatzeko eta tokiko industria, enplegua eta ekimenak sustatzeko.

Horrela bada, merkataritza legeak beste edozein gizarte-gairen gainean nagusitzen dira eta bazter uzten dituzte kontinenteko, nazioko, lurraldeko edo herrialdeko lege guztiak. Egitura-doikuntza murriztaileek tokiko erkidegoak ere menperatzen dituzte, merkataritza librea eta inbertitzaileen intereska babesteko politikak gailentzen ari direlako. Politika horiek zerbitzu publikoak suntsitzen dituzte eta tokiko botereei askatasuna kentzen die zerbitzu publikoak emateko eta herritarren gizarte beharrak asetzeko, tokiko industria eta enplegua garatu eta suspertzeko politika eta planak erabiliz.

Europako herriek eta hiriek badakite zer garrantzia duen salgaien eta zerbitzuen merkataritzak bere herritarren ongizatean. Hala eta guztiz ere, lehiakortasuna eta garapen ekonomikoak ez lukete irizpide bakarrak izan beharko TTIP bezalako merkataritza hitzarmenak onartzeko. Ingurumena eta gizartea babesteko arloak ere kontuan hartu behar dira, bi alderdiren arteko merkataritza akordioak onesteko. Era berean, analisi konparatiboak egin beharko liriateke aztertzeke, bat.etitik, alderdi horietan hitzarmenak sortuko lituzkeen kostuak; eta bestetik,

hitzarmenak ekarriko lituzkeen balizko onurak. Beraz, analisi horrek balizko ondorio ekonomikoak ez ezik, bai EBko bai AEBetako gizartean, ekonomian, osasunean, kulturak eta ingurumenean sortuko lituzkeen ondorioak ere aztertu beharko lirateke.

Tokiko administrazioek:

**Herritarren beharretatik hurbil dauden neurrian, ATICen helburuetan esku hartu behar dute, eta horien aurrean erantzuna eman, ez badute herritarrei laguntzarik ez ematea eta planeta arriskuan jartzea leporatzerik nahi.*

** Zerbitzu publikoak eta tokiko industria eta enplegua sustatzeko bide egokiak diren neurrian, horiek sustatzeko ahalegina egiten dute guztion onerako.*

** Gizarte, ekonomia eta ingurumenaren erronkei erantzuna eman behar diete; eta ondorioz, zerbitzu publiko unibertsalak eta herritarren babesa defendatu behar dute.*

Tokiko komunitateek eztabaida eta gogoeta publikoa eta demokratikoa zabaldu nahi dute, hitzarmen honen aplikaziotik sortuko den egoeraren gainean eta zerbitzu eta erosketen publikoen etorkizunaren gainean:

- *Merkataritza eta inbertsioak ekonomian eta gizartean bakarrik onuragarriak izango dira, tokian tokiko giza beharrak errespetatzen badira, eta azken xedea espekulatuailen finantzarioen eta enpresa multinazionalen etekina ez bada.*
- *Zerbitzu publikoak etengabe eta era programatuan deuseztatzeak berekin dakar etengabe eta era programatuan elkartasuna eta demokrazia ere deuseztatzea.*
- *Zerbitzu eta erosketen publikoak konkurrentziari ahalik eta gehien zabaltzeak ondorio kaltegarriak dakartza, sarbideari, kalitateari eta kosteari dagokionez.*
- *Gizarte eskubideak besterezinak direnez, ezin dira inola zere merkatuaren logikaren menpe egon.*
- *Gizarterako onuragarriak diren zerbitzu publiko anitzak egoteak guztiontzako eta toki guztietan kalitatezko bizimodu duina ziurta dezake, demokraziaren benetako erabilerarekin bat etorritik.*
- *Kontrol publikoa bermatu behar da, guztiok ondasunetara iritsi gaitzen eta tokiko industria eta enplegua susta dadin.*
- *Hori dela eta, hurrengo proposatzen dugu:*

MOZIOA.-

1.- Anoetako udalerria intsumisioa eta TTIPen kontrakoa dela aitortzen dugu; halaber, oinarritzko zerbitzu publikoak elkartasunerako eta gizarte birbanaketarako defendatzen dugu.

2.- Estatuko Gobernuaren Herri Administrazioen Ministerioari eta Eusko Jaurlaritzari eskatzen diegu gizarterako onuragarriak diren zerbitzuek izaera publikoa mantentzea helburu duten ekimen guztiei laguntzea.

3.- Ekonomia Ministerioari eskatzen diegu TTIPen negoziazioak bertan behera uzteko, hurrengo helburuak lortzeko:

** Ez akordio honetan ez beste akordio batean ISDS bezalako mekanismorik ez egotea.*

** EBk eta horko estatuek duten erregulazio politika defendatzea, lan araudietan, kontsumitzaileen babesean eta ingurumenaren babesean eskumenik ez gal ez dezaten.*

** Hitzarmena alderdi ekonomikoetara ez mugatzea eta gizartearen eta ingurumenaren helburuak ere garrantzitsuak izatea eta berdintzea.*

** Negoziazioetako gardentasun faltari amaiera ematea, jendaurrean informazio guztia jartzea eta EBN eta estatuetako parlamentuetan eztabaida publikoa zabaltzea.*

** Bai zerbitzu publikoak bai jabeko intelektuala hitzarmenetik kanpo geratzea”.*

5.- ANOETAKO ZERO ZABOR PLATAFORMAK PROPOSATUTA ZUBIETAKO ERRAUSTEGI PLANTARI BURUZKO MOZIOA.

EH Bildu taldeko zinegotzia den Aratz Luisa Urkola jaunak, ondorengo mozioa irakurtzen du:

“ZUBIETAKO ERRAUSTE PLANTARI BURUZKO MOZIOA.-

Urte askotako tirabira politikoen ondoren, badirudi berriz ere martxan jarri nahi dutela Zubietako errauste plantaren proiektua. Behintzat, hala agindu dute Gipuzkoako Foru Aldundiko arduradun berriek.

Gure ustez honelako asmoa ez dator bat Europako Legebiltzarrean 2015eko uztailaren 9an (PNV, PSOE, PP, IU, EH BILDU, PODEMOS...-en botoekin) onartu zen erresoluzioarekin. Bertan, beste puntu askoren artean, zera esaten du:

35. artikulua:

- beranduenez 2020an materia organikoa banatuta biltzeko obligazioa.*
- 2020an hondakin birziklaezinetara eta biodegradagarri ez diren etara mugatzea errausketa.*
- Zabortegietan isurtzea progresiboki eta derrigorrez murriztea.*
- Hondakinak zabortegian isurtzeari eta errausketari tasak ezartzea.*

Kontuan izanik zati birziklaezina, errefusa bezala ezagutzen duguna, %10era ez dela heltzen, Gipuzkoan 2014an guztira 300000 tona hondakin sortu baldin badira, erraustegira joan daitezkeenak 30000 baino gutxiago izango dira 2020an. Hondakin hauentzako eraiki behar al da 260000 tona erre dezaken planta? Jadanik Europako leku desberdinetan erregaia falta zaie erraustegiak elikatzeke (Suedia, Alemania, Dinamarca, Holanda, Mallorca, ...) zaborraren inportazio/esportazioak ohikoak bihurtzen ari dira. Jakinik konpetentzia gero eta handiagoa izango dela, Gipuzkoak ere zabor inportazio merkatu horretan sartzeko asmoa al du?

Anoetan berehala neurri eraginkorrak hartzen hastea eskatzen dugu, honela 2020 baino lehen hondakin guztiak gaika bildu ahal izan ditzagun eta Europako Legebiltzarrek eskatzen duena bete dezagun.

Energia berreskuratzeke egiten den errausketa, eraginkortasun urriko tratamendua da, lehengaien eta energiaren xahutzailea, ingurumenean berez ez dauden produktu toxikoak sortzen dituena, birziklapena sustatzearen aurkakoa, jasangarritasunaren aurkakoa eta lanposturik sortzen ez duena.

Erraustea eta zepa toxikoak sortu eta ura kutsatzeaz gain, erraustegiek ikatzeke zentral termikoen aldean berotegi efektua sortzen duten gas kantitate bikoitza sortzen dute kilowat.ordu bakoitzeko. Bere eraginkortasun energetiko ahularen ondorioz, hondakin pisu eta bolumen handia erretzera behartuta daude energia unitatea sortzeko.

Gaur egun, Gipuzkoarentzat nahi dugun eredu jasangarria osatzeko, hainbat konpostatze planta berri eta inerteen hondakindegia bat edo bi beharko genituzke.

Gainera Anoetan kezkatuta gaude osasunarengan eduki dezaken eraginarekin. Izan ere, European dozenaka azterketa epidemiologikok frogatu dute errauste planta batetik gertu bizi diren herritarrek aukera gehiago dutela minbiziak, leuzemiak, malformazio genetikoak, ernalketa sistemaren mutazioak eta bestelako gaitz asko pairatzeko. Erraustegiak dioxina sortaile handiak dira, eta Osasunerako Mundu Erakundeak (OME) berak minbizia eragileztat jo ditu dioxinak. Partikula horiek elikagai katearen bidez gure gorputzera sartu, eta metatzen joaten dira, desagertzeko aukerarik gabe. Frantziako Medikuen Plataforma Nazionalak (Osasun erakunde nagusiak bertan biltzen dira) gobernuari errauste planten gaineko atzerapen bat eskatu zion 2007an.

Dominique Belpomme kantzerologo frantses ezagunak “errauste plantaren aldeko apustua egitea minbiziarekin bizitzeko arriskua asumitzea” dela dio. Guk ez dugu halakorik nahi ez guretzat ez gure seme-alabentzat. Horregatik, eskatzen diogu Diputazioari eta gai honetan zeresan handia duten mankomunitateei eta Gipuzkoako Hondakinen Partzuergoari bazter dezatela Zubietako errauste plantaren proiektua eta aintzat hartu dezatela xxx-tarron eta xxx-ko udalaren kontrako iritzia.

ERABAKIAK

Horregatik guztiagatik Anoetako udal baltzak:

- 1. Zubietako errausketa plantaren aurkakotasuna agertzen du.*
- 2. GFari, Gipuzkoako Hondakin Partzuergoari eta Mankomunitatei, Zubietako errauskailu proiektua bertan behera utzita, lortu beharreko hondakinen sorkuntza murrizpen eta birziklatze tasak lortzeko eta zero zaborreko ekonomia zirkularreko eredu baterantz aurrera egiteko gaikako bilketa arloan eta hondakin kudeaketa orokorrean beharrezkoak diren neurriak lehenbailehen har daitezela eskatzen du.*
- 3. Hondakinen kudeaketa egokirako beharrezkoak diren konpostatze planta eta inerteen hondakindegia eraikitzeke kokapen egokienak aztertzea eskatu Gipuzkoako Foru Aldundiari, beti ere ingurumen baldintza eta logistikoak kontuan izanik.*
- 4. Foru Aldundiari eskatu, gardentasuna eta elkarlana sustatuz, aurreko puntuko azterketaren emaitza teknikoak ematearekin batera, dagokion Udalekin elkarriketa eta negoziazio prozesua irekitzea.*
- 5. Gipuzkoako edozein udalerritan hondakinen erraustegia kokatzea aurkako jarrera argia agertzea.”.*

Ondoren alkateak aipaturiko mozioa bozketara eraman du ondorengo emaitza lortuz:

*ALDEKO BOTUAK: **BOST** (EH Bildu talde politikoa)

* AURKAKO BOTUAK: **BI** (EAJ talde politikoa)

* ABSTENTZIOAK: **BAT ERE EZ**

Bozketaren emaitza ikusi ondoren, Zubietako errauste plantari buruzko mozioa onesten da.

6.- “ZURRUMURRURIK EZ” AGIRIA SINATZEA UDALBATZARI JAKINARAZTEA.

Udalbatzari jakinarazten zaio Alkateak, aurretik Parekidetasun Batzordean gaia diktaminatuta “Zurrumurrurik ez” Agiria (ZAS diskriminazioaren eta xenofobiaren aurkako prebentziorako sentsibilizazio sozialeko estrategia) sinatu duela.

Udalbatzakideak jakinaren gainean geratzen dira.

7.- HONDAKINEN BILKETA SISTEMAN ALDAKETAK

Alkateak azaltzen du gaia: Gaur egun Anoetan dagoen zaborbilketa sisteman zenbait aldaketa egitea planteatu da: plastiko eta paper motako hondakinentzat kontenedoreak jartzea, atez ateko bilketa organiko eta errefusarentzat geldituz. Herri batzarrean gaia aztertu dute.

Kontutan hartuta Anoetako Udala Tolosaldeko Mankomunitatean sartuta dagoela, eta zaborbilketa zerbitzua mankomunitateak kudeatzen duela berari eskatu behar zaio proposamen hau onartzea eta bideratzea.

Aipatu proposamena bozketara eramaten da ondorengo emaitza lortuz:

*ALDEKO BOTUAK: **BOST** (EH Bildu talde politikoa)

* AURKAKO BOTUAK: **BI** (EAJ talde politikoa)

* ABSTENTZIOAK: **BAT ERE EZ**

Bozketaren emaitza ikusirik onartuta gelditzen da proposamen hau:

Gaur egun Anoetan dagoen zaborbilketa sisteman honako aldagetak egiteko eskatzea Tolosaldeko Mankomunitateari : plastiko eta paper motako hondakinentzat kontenedoreak jartzea, atez ateko bilketa hondakin organiko eta errefusarentzat geldituz.

8.- HAUTESKUNDEETAKO MAHAIEIEN ZOZKETA

2016ko ekainaren 25ean ospatuko den Diputatuen Biltzar eta Senaturako Hauteskundeetako espedientea ikusirik.

Hauteskundetarako Lege Organiko Orokorraren 26. artikulua dioenaren arabera, hauteskunde-mahaietako kideen izendapena Udaletxetako Udaltzatetan egindako zozketa publiko bidez egin behar da.

Bi hauteskunde-mahaietako kideak izendatzeko zozketa publikoa egiten da, ondorengo suertatuz:

. A MAHAIA

Mahaiburua:

- Titularra: M^a Fatima CABALLERO MIRON (hautesle zkia. 322)
 - 1. Ordezkoa: Helene COLOMO IRAOLA (383)
 - 2. Ordezkoa: Oihana BARRENECHEA ARRIBILLAGA (257)

1. Bokala:

- Titularra: Javier BARRIGA PATROCINIO (259)
- 1. Ordezkoa: Juan Miguel ARANA GOYA (126)
- 2. Ordezkoa: Angela M^a ARAGON GRANADO (117)

2. Bokala:

- Titularra: Garbiñe ANTON GARMENDIA (106)
- 1. Ordezkoa: Larraitz AIERDI MAIZ (31)
- 2. Ordezkoa: Larraitz AGUIRREZABALA AYESTARAN (27)

. B MAHAIA

Mahaiburua:

- Titularra: Bixente MUNDUATE MARTINEZ (292)
- 1. Ordezkoa: Janire ITURRIA SAGASTIBELTZA (63)
- 2. Ordezkoa: Simon MELON ALFAGEME (250)

1. Bokala:

- Titularra: Iñigo JIMENEZ MARTINEZ (101)
- 1. Ordezkoa: Aritz REZOLA VEGA (480)
- 2. Ordezkoa: M^o Carmen LULOAGA JAUREGI (195)

2. Bokala:

- Titularra: Carla Vanesa SANCHEZ GRIMALTOS (525)
- 1. Ordezkoa: Jose Alberto REBOLLO LORENZO (466)

- 2. Ordezkoa: Amaia NUÑEZ YARZA (311)

9.- GALDE-ERREGUAK

Bat ere ez.

Eta beste aztergairik ezean, Alkateak amaitutzat eman du bilkura, iluntzeko zortziak hogei gutxi direnean; guzti honetaz, nik bitarteko idazkariak, fede ematen dudalarik.